

BERRIGARA

zenbakia JARDUN Elkarte, Bergara 1995, azaroak 24

*Bergarako alkate
zandakoarekin
berriketan*

**UNEDen aldeko
manifestazioa
larunbatean**

**Jose
Antonio
Zabala**

**Danetik
eta onetik...**



**Bergarako
dendetan!!**



BERGARAKO OSASUN Gida

ALBAITARIAK:

- ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak). Telefono mobila: 908 77 17 32. ☎ 76 43 29
- ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albitari ofiziala). Telefono mobila: 908 77 17 32. ☎ 76 43 29
- IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak) - Iribar baserria ANTZUOLA. ☎ 76 63 46
- NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika). 908 87 68 47 (Mobila) - Koldo Eleizalde, 28. ☎ 76 27 97

ANALISI KLINIKOAK:

- LABORRA Isabel - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

BARNE MEDIKUNTZA:

- IRIGOYEN Victor - Oxirondo 4, 1.B. ☎ 76 32 06

DENTISTAK:

- ASTIAZARAN SOLOZABAL - Iparragirre, 1 behe. ☎ 76 27 95
- BERGARA HAGIN KLINIKA - Bidekurutzeta 6, 2. ☎ 76 05 77
- GOROSABEL J. Alberto - Fraiskozuri, 5 behe. ☎ 76 56 88
- IRIARTE Idoia - Artekale 1, 1.C. ☎ 76 01 65
- SUDUPE Felipe - Matxiategi, 18 behe ezk. ☎ 76 07 66
- GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E.M. - S. Arrieta 3, 2.B. . ☎ 76 38 54

FISIOTERAPEUTAK:

- ARZAK Miren (Reeducacion Postural Global) - Masterreka, 7 4.C. ☎ 76 43 71

GINEKOLOGOA:

- SERRANO Doktorea - Ramon María Lili, 2. ☎ 76 59 39 - 72

MASAILARIAK:

- AGIRREZABAL Jose Jabier - Boni Laskurain 1, 2.A. ☎ 76 15 74
- AZPEITIA Irune - Agorrosingo udal igerilekuak. ☎ 76 20 51
- CASANELLAS Jabier - Boni Laskurain 5, 2.E. ☎ 76 03 78
- GIARTZU - Boni Laskurain, 3 behe. ☎ 76 35 71
- MARTINEZ Luis Jabier - Masterreka 7, 3.A. ☎ 76 51 18

MEDIKUNTZA OROKORRA:

- ARCINIEGA Julio - Boni Laskurain 3, 1.B. ☎ 76 37 50

PEDAGOGOAK:

- IZETA Maribi (Gabinete psikopedagogikoa: logopedia, psikomotrizitatea) - Simon Arrieta 3, 2.E. ☎ 76 26 42

PODOLOGOAK:

- ALTUBE Edurne - Simon Arrieta, 2. ☎ 76 07 84
- AZPIAZU Arantzazu - Herri Lagunak, z/g. ☎ 76 41 32

PSIKIATRA:

- GALLASTEGLI Pablo - San Martin Plaza 2, 1.ezk. ☎ 76 26 64

PSIKOLOGOAK:

- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). ☎ 76 14 80
- URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa). ☎ 76 53 13
- ZUBILLAGA, ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa). ☎ 76 30 76

HOTALDE JAUREGIA
70 Bergara
eta Faxa: 76 03 97

gitaratzailea:
DUN Elkartea.
Berreka, 13 Bergara.
eta Faxa: 76 08 19

endaria:
ko Azkarate
redakzioa:
do Mendibil
Elkoroberezibar
Larrañaga

ketazioa:
ko Azkarate
bilizitatea:
ko Azkarate
pidetzak:
ka Elortza

stuen zuzenketak:
agan Plazaola
Laskurain
Labaien

redakzio kontseilua:
ka Elortza
Angel Elkoroberezibar
Labaien

mikiak:
Rodríguez
Ortega & Jon Alvarez
Ugalde

aketa:
angorri taldea
ada:
00 ale.

rimategia:
Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati)

right:
BERRIGARA

ge gordailua:
60/91
SN:
00-8599

BERRIGARAk ez du bere gain
izen aldizkarian adierazitako
izen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Bizkaiko Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
Leizola Kulturaren sailaren
laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

RUFINA OLASAGASTI

Udaleko Kultur Gestorea

- Zer gertatu zen larunbateko zine emanaldia bertan behera uzteko?

- Forum Cinématographe taldeak ilusio handiz prestatutako zine emanaldia ez zen gauzatzerik izan Madriletik heldu behar ziren pelikulak eskuratu ez zirelako. Sentitzen dugu benetan hurbildutako jende kopuru ugariari hutsegite honenkin sortutako eragozpenak.

- Emanaldi horren fetxa berririk zehaztu al da?

- Gure asmoa da urte zahar alderako emanaldia prestatzea eta ziurrenik abenduaren 27an izango da musika biziaz lagundutako filme horien proiektzioa. Ea interesa azaldu duten guztiei goza-



men piska bat ematea lortzen dugun.

- Eta noiz izango dira hurrengo emanaldiak?

- Badirudi Forum Cinématographe taldeak hileroko lehen ostiralean emango dituela. Urtarrilaren 12an izango da lehena, "Vampire" filmea eskeiniko dutelarik.

"Pasa den larunbatean Madriletik iritsi behar ziren pelikulak ez ziren eskuratu"

I T U R R I O N E T I K

Telesforo Monzonen artikulua liburuaren aurkezpena abenduaren 19an Bergaran

Abenduaren 19an Telesforo Monzonen iritzi artikulua biltzen dituen "Langosta baten inguruan" izenburuko liburua aurkeztuko da Olaso Dorrean. Aipatutako liburuan Monzonek 1950etik 1960. urtera bitartean Donibane Lohitzunen idatzitako artikuluen aukeraketa bat egin da. Artikulu gehienak orduko Alderdi aldizkarian argitaratu ziren. Koldo Eizagirre idazleak egin du artikuluen aukeraketa eta, berarekin batera, Josefa Ganuza Monzonen alarguna, Xabier Mendiguren Elkar argitaletxeko arduraduna eta Juan Martin Elexpuru bergarar idazlea izango dira. Liburuaren 1.500 ale inguru kaleratu dira.


E S A N
D U T E

"Euskal Herrian gorren kolektiboa dexente handia da. Gertatzen da antolakuntza nahiko ona dagoela, gorren elkarteak lan sendoa egiten baitu. Azken finean koordinazio ona dago eta gizarteratze horretan pausu asko ematen dira. Minoria bat denez, gizaratek berdintzea nahi izaten ditu eta ez ditu ondo asimilatzen. Baina harremanak eta elkarrenganako integrazioa erreztu egiten dira"

**IÑAKI
MADINABEITIA**
Arans-Giko
irakaslea
EUSKADI IRRATIA

"Komunikabideak Jarrairi buruzko tirania toxikatzailea mantentzen duten borborkak dira. Y taldeen kontua komunikabideen asmakizuna da, Jarrairi erasotzeko asmakizuna, jende ugari hezi duen eskola dela ongi dakitelako"

MIKEL ZUBIMENDI
HBko
parlamentaria
EGUNKARIA



FRENCH KISS

Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30
(Ikuslearen eguna).



POWER RANGERS

Igandea: 11.30



EL INFIERNO

Osteguna: 20.00 (Zine-kluba)

Zinea

▼▼ **Lawrence Kasdan** zuzendariak hainbat jenero landu ditu bere filmeetan (*Fuego en el cuerpo, Grand Canyon, Wyatt Earp*). Honako honetan komedia erromantiko bat aurkezten digu **Kevin Kline** eta **Meg Ryan** aktore ezagunen laguntzaz. Ezkondutako emakume estatubatuar batek (**Ryan**) bere bizitzako amodioa (**Kline**) ezagutuko du Frantzian, bere bizitzak sekulako aldaketak jasoko dituelarik.

▼▼ Marrazki bizidunetan oinarritutako filmea matinalerako. **Power Rangers** heroiek izugarriko boterea duen etsai bati aurre egin beharko diote, mundu osoaren etorkizuna arriskuan ikusi nahi ez badute. Gudari eder baten laguntzaz Ninjettien artea ikasi eta borrokarako gertu egongo dira...

▼▼ **Claude Chabrol** zinegile frantziarrak zuzendutako filme honetan pasioa eta obsesioei buruzko erreflesioa planteatzen zaigu. **Paul (Francois Cluzet)** oso zelatia da eta bere emaztea (**Emmanuelle Beart**) mundu guztiarekin oheratzen dela uste du. Egoera horretan infernuko atea zabaltzen omen dira...

Deiak

▼ **1970**ean jaio eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibilitakoekin bazkaria abenduaren 2an Antxonin. Izen-ematea Kortazarren.

▼ **Erakusketa.** Udazken Kulturalaren barruan, zigilu eta diru bildumazaleen erakusketa Kultur Etxean azaroaren 25etik aurrera.

▼ **Eski** eta mendi materialaren azoka bihar larunbatera arte Pol-Polen zabalik. 5etatik 8etara.

▼ **1968**an jaio eta Aranzadi Ikastolan elkarrekin ibili zirenen afaria abenduaren 16an. Izen-ematea Bolintxo kirol dendan, 76 38 32 (Alex Gardoki) telefonoan.

▼ **Esperanto** ikastaroa abenduaren 6tik 10era Gasteizen. Argibideak: (945) 22 45 50 (David).

Ogia

▼ **Igandea 26:** Bolintxo.

FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 24:** Guallar/Morales.
- ▼ **Larunbata 25:** Estella/Azkoa..
- ▼ **Igandea 26:** Estella/Español.
- ▼ **Astelehena 27:** Mozos/Corcu.
- ▼ **Asteartea 28:** Camacho/Trizar.
- ▼ **Asteazkena 29:** Puy/Amezua.
- ▼ **Osteguna 30:** Guallar/Ruiz.

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Antzerkiaren txanda

Maskaradaren "Ernesto izatearen garrantzia" gaur

Maskarada antzerki taldeak "Ernesto izatearen garrantzia" antzezlan eskeiniko du gaur, ostirala, gaueko 10.30etan, Nove-dades aretoan.

Orain 100 urte estreinatzen zen Londresen Oscar Wilde ospetsuaren antzezlan hau. Estrenaldi arrakastatsua izan arren, handik gutxira, Oscar Wilde epailearengana eraman zuten, homosexual eta pederasta izatearen akusaziopean. Bi urtez espetxeratu zuten eta kartzelatik atera eta handik 3 urtera, Parisen hil zen, bakardadean.

"Ernesto izatearen garrantzia"n kasualitatearen gaia landu zuen Wildek. Hasieran gezurra dena egia bihurtzen du argu-

mentuaren beharrak eta, baliabide horren bitartez, orduko gizarte victoriarren itxurakeria eta konbentzionalismoa kritikatu nahi izan zituen Oscar Wildek.

Carlos Panera zuzendariak egin du lanaren egokipena eta errepartoan Asier Hormaza (Jorge Worthing), Jokin Oregi (Alfredo Moncreff), Maite Arrese (Cecilia), Esther Uria (Gwendolina), Ane Aseginolaza (Lady Bracknell), Txetxu Altolagirre (Chasuble apaiza), Ene-ritz Artetxe (Prisma) eta Aitor Argote (Lane Merriman) aktoreak dira. Muntai-a honen gaztelerako bertsioarekin Estatuan zehar jira bat egiteko asmoa dute.



Wildek idatzitako lanean gizarte victorianoaren kritika egiten da.

Maskarada taldea orain 15 urte sortu zen eta orduetik, besteak beste, "Gastibeltzaren karabinak", "Logalea zeukan ekilibristaren kasua" (Bernardo Atxagaren testua),

"Marxkarada" (Marx anai-iei egindako omenaldia) edota "Kontrabajoa" (Patrick Süskind-en lana) antzezlanak eskeini ditu. Sarrrerak 500 pezetan jarriko dira salgai.



■ Legazpi abesbatza larunbatean

Bihar larunbata, hilak 25, arratsaldeko 8etan Santa Marina elizan kontzertua eskainiko du Legazpi abesbatzak. 1973. urtean sortua, gaur egun 47 ahots nagusik osatzen dute eta Rafa Lasa Gordoia jaunak egiten du zuzendari lanak. Euskal Herri osoko hainbat bazterretan eta baita Salamanca edota Madril ibilia da. Era berean ETBko lehen Abesbatzen Lehiaketan hartu zuen parte. Larunbatean, hainbat autoreren 18 kanta eskainiko du.

PINTURAS BERGARA

P
B

Aranerreka, 32 behea. BERGARA.
Tfnoa eta faxa: 76 11 40

• INDUSTRIARAKO PINTURAK • GARBIKETAK •
• APAINKETARAKO PINTURAK • ERROTULOAK • etab...

Victoriano Euskara eta hezkuntza herritarren etsai

Sinestezina suertatzen zaigu Victoriano, Bergarako Udaletxeko alkate eta UNEDeko Patronatoko kide den neurrian honekiko hartu duen jarrera. Euskal Kultura Departamentua (EKD) ixteko hartutako erabakia oinarritzeko argudio formalik ez dugu entzun ez eta irakurri ere:

Arrazoi ekonomikoak argudiatzen dituzte Patronatoko kideek alde batetik, zerbitzuen duplikazioa bestetik, baina ziur gaude benetako argudio edota arrazoia soil-soilik politikoa dela. EAJ-PNVko Gipuzku Buru Batzarrak hartutako erabaki politikoa da. EKD ixteaz gain Bergarako UNEDeko zentroa oso zentro berezizat eduki duguna betidanik, zeharo ahulduta geldituko da eta bergarroi eskeintzen digun zerbitzuak asko galduko du. 33 lagunetatik 21 kalera bidaltzeak, hau da 12ra jeisteak, Bergarako UNED desagertzeko apostu garbia azaltzen du.

EAJ-PNVren politikaren bitartez Bergara herri triste eta soso bat izatera heldu da, lehen zegoen alaitasuna eta bizia gure kaleetatik desagertu da, horma grisak, kaleak hormigoiairen iluntasunez blai..., larunbat goizetan, berriz, Euskal Herriko herri eta txoko pilo batetik gure herrira hurbiltzen dira UNEDeraino. Larunbat goizetan gure herriak bizitasun berezi bat edukitzen du, orain dena galteko arriskuan gaude. Baina EAJ-PNVk nahiago du guztia bere kontrolpean izatea, plazaren bestealdeko euskaltzale horiek ez ditu gustoko, egunero gure hizkuntzarekiko dituzten kontraesan guztiak gogoratzen baitizkiote.

Victoriano zeuk eta zure alderdiak hartu duzuen bideak euskara eta herri hezkuntza zuzenean mehatxatzen ditu. Bakoitzari berea, eta jakin ezazu zeu zarela bergararren aurrean erantzule nagusia. EKD ez itxi. UNED ez ahuldu.

AITOR ARANZABAL (HBKO ZINEGOTZIA)

UNEDeko EKD kendu behar dela? Zergatik?

Hau da oraindik erantzunik gabeko galdera. Orain arte entzundako eta irakurritako guztiak ez dio honi erantzuten. Sasi-argudioz josita dauden adierazpen horiek ez ditugula onartzen argi utzi nahi dugu. Sasi argudio horien artean, asko aipatu da bai AEK bai beste erakunde batzuen eskaintzek betetzen dutela EKDK orain arte jorratutako lana. Azaldu nahi dugu zergatik ez den egia.

Hasteko, helduen irakaskuntzan aritzen garenek prestakuntza berezi bat behar dugu. Bi arlo nagusietan, alde batetik glotodidaktika (hizkuntza ikasi eta irakasteaz arduratzen dena) eta beste aldetik hizkuntzalaritza (hizkuntza landu eta eguneratzeko beharrezkoa dena). Glotodidaktikari dagokionez AEKk antolatu ditu bide ezberdin batzuk. Hala nola, glotodidaktika ikastaroak, urteroko didaktika tailerrak, UEUko glotodidaktika saila eta "Euskalduntze eta Alfabetatze Diploma" EHEn. Bigarren atala, berriz, hizkuntzalaritzari dagokionez, betidanik baliatu gara EKDK. EGA ondoren ez baitago beste biderik hizkuntza maila hobetzeko eta lantzeko.

Azpinarratu nahi dugu irakasle gehienok (ez euskara irakasten dutenek soilik, euskaraz irakasten dutenek ere bai) eta euskal filologo askok zerbitzu hau erabiliz izan dugula eta aurrerantzean berdin jarraitzeko nahia eta beharra dugula. Deba Garaiko AEKko irakasle gehienok EKDKo ikastaro ezberdinak ditugu. Kontziente gara, euskararen etorkizuna neurri handi batean irakasle on esku dagoela, eta hori bermatzeari lehentasuna eman behar zaiola. Bada garaia EKDK kentzeko erabaki hau hartu dutenei gogorarazteko hizkuntz-politika baten lehentasunak zeintzuk diren.

Urriaren 11ko manifestazioan, Bergarako kaleetan argi gelditu zen gaia berraztertu behar dela eta hausnarketa serio bat eskatu nahi diogu Patronatoari (Foru Aldundia, Kutxa eta Bergarako

Udalari). Azterketa serio honek erabaki hori alzata botako duela argi dago.

AKULU AEK EUSKALTEGIA ETA
ERDU AEK EUSKALTEGIA

Bergarako gazteriak ez al du gaztetxerik nahi?

Joan zen azaroaren 15ean bi urte bete ziren gaztetxea itxi zigutenetik. Lehenik eta behin zera aipatu nahi dut, Bergarako zuten kultur elkarte nagusienetarikoa bat itxi zutela. Hasiera batean jende ugari mugitu zen gaztetxearen alde, baina denbora joan ahala konturatzen naiz herri honetan dagoen "pasotismoa" eta "konformismoa" harri garria dela.


Lehen Udalari, apezpikuari, zipaioei etab. botatzen genien errua, baina bi urte pasatu izana ez da arrazoia isilik egoteko, hori nahi baitu gure Udalak, gu, gazteak ez "auto-organizatzea".

Bergarako gazteriak ez al du gaztetxerik nahi? Noiz konturatuko da gazteria gaztetxe bat beharrezkoa dela? Noiz konturatuko da gazteria gaztetxea ez dela zerurik eroriko?

Herri bat gaztetxe bat!!

I. H. C. (NAN: 44.140.073)

Tiira biraka



GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



◆ **HHI-EPAren ikastaroak**

Bergarako Helduen Heziketa Iraunkorreko eskolak hainbat ikastaro antolatu ditu abenduaren 11tik 22ra. Arratsaldeko 3retatik 5etara eskulanak, mekanografia eta bideo-foruma izango dira eta 6etatik 8etara sukaldaritza eta eskulanak. Izena emateko epea azaroaren 30era arte izango da zabalik HHI eskolan (76 44 52 telefonoa).

◆ **Santa Zezilia**

Antzuolako Udal Txistulari Bandak kalejira egingo du Antzuolako kaleetan zehar igandean goizeko 9etan hasita. 12,45etan, berriz, kontzertua emango du zine aretoan Bergarako Musika Eskolako metal boskotearen eta herriko dantzari bikote baten laguntzaz.



Argazkian ikus ditzakezue iazko irabazleak.

Amodiozko gutunen lehiaketa: laugarren edizioa martxan

JARDUNEK Amodiozko Gutunen IV. Berrigara Lehiaketa konbokatu du. Bertan 1981ean edo lehenago jaiotako edozeinek parte hartu ahal izango du eta lan guztiak argitaragabeak eta euskaraz idatzitakoak izan behar dira. Lanek gutun forma izan behar dute eta, DIN A-4 orrietan, eskuz zein makinaz idatzita aurkeztu behar dira. Lanen luzera ezin izango da bi orrialde baino gehiagokoa izan eta lanak emateko epea urtarrilaren 15ean bukatuko da. Lanean egilearen lema bat besterik ez da jarriko. Egilearen datuak beste sobre itxi batean sartu

beharko dira eta sobre horren azalean egilearen lema bera jarriko da. Lanak eta egilearen datuak biltzen dituen sobrea helbide honetara bidali behar dira: "Amodiozko Gutunen IV. Berrigara Lehiaketa". Jardun Elkarte. Masterreka 13, behe. 20570 Bergara.

Sariak honako hauek izango dira: 75 mila pezeta irabazlearentzat, 40 mila bigarren sariarentzat, Bergarako onenari 25 mila pezetako saria emango zaio eta, azkenik, irakurle gazteek emandako saria Xabier Díaz de Zerrioren eskultura bat izango da. Azken honetan Bergarako ikas-

tetxe ertainetako ikasle talde batez osatuko da epaimahaia eta gainontzekoetan, berriz, epaimahaia literatura eta kultura munduko pertsona ezagunek osatuko dute. Ohi den bezala, sari ematea San Balentin egunean egingo da.

Lehiaketara aurkezten diren lan guztiak Jardun Elkartearen esku geratuko dira eta osorik zein zatika argitaratzeko eskubidea izango du Jardunek, beti ere egilea zein den garbi adieraziz. Aurreko edizioan 198 gutun jaso ziren eta saritutakoen artean Izaskun Arziniaga eta Iulen Agirrebeña bergarrak izan ziren.

HILDAKOAK

Julian Larrañaga Etxeberria

Azaroak 20, 65 urte

Purificación Horrillo Rodríguez

Azaroak 22, 30 urte

JAIOTAKOAK

Amaia Galarraga Maiztegi

Azaroak 12

Mikel Fernández Guridi

Azaroak 13

Iker Fidalgo Ballesteros

Azaroak 15

Unai Fidalgo Ballesteros

Azaroak 15

BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA

Ibarrekruz, 4 EIBAR

☎ 76 63 42 ARRASATE

BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte, 8 BERGARA

☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxa: 76 04 77

HARATEGIA- URDAITEGIA

Sebastian Imaz


Bildotsa, txahala eta oilaskoak

Aranerrika, 1 ☎ 76 32 67 BERGARA


Carlos Garaikoetxea Bergaran bisitari

Joan zen larunbatean Carlos Garaikoetxea EAko Presidentea Bergaran izan zen. Eguerdian EAko jarraitzaileen omenezko meza entzun ondoren, Kultur Etxera hurbildu zen Erret Mintegiaren museoari buruzko erakusketa ikustera. Berarekin batera, besteak beste, Eneko Oregi Hezkuntza Sailburuordea, Jose Julian Irizar Garraio Diputatua, Jose Antonio Zabala Bergarako alkate izandakoa eta Juan Mari Garitano Bergarako EAko burua izan ziren.

Erakusketa ikusi ondoren solasaldi bat izan zuen bertaratutako kazetariekin. Bien bitartean, HBko zinegotzi eta beste alderdikide batzuk pankarta bat zabaldu zuten. Bertan, "EKD ez itxi, UNED ez ahuldu" irakurri zitekeen. Maite Aristegi eta Jose Ramon Etxeberria HBko zinegotziek UNEDen egoerari buruzko idatzi bat eman zioten Garaikoetxeari. Bukatzeko EAko afiliatu eta jarraitzaileek bazkaria egin zuten Alkartetxean.



Gaur egungo egoera politikoari buruzko azalpenak eman zituen Garaikoetxeak.



Hasieran zuriz pintatzea erabaki bazen ere, berdez pintatuko dira frontoiko kantzako paretak.

Udal Pilotalekuko kantzako paretak berdez pintatuko dira

Pilota enpresak ordainduko du gainkostua

Hirigintza Batzordearen azken bileran hartutako akordioaren arabera, Bergarako Udal Pilotalekua azkenean berdez pintatuko da. Hasierako proiektuan zuriz pintatuko zela jasotzen bazen ere, Iñigo Idarretak berdez pintatzeko eskakizuna aurkeztu zuen eta Udalak baimena eman dio. Idarretak udal ordezkariari adierazi zenez, aurrekontuari dagokionez, ez dago alde haundiegirik berdez edo zuriz pintatzearen artean. Idarreta alde hori (300.000 pezeta ingurukoa) ordaintzeko prest azaldu zen eta Udalak baimena eman dio. Telebistaz pilotalekuko partiduak eman ahal izateko askoz ere hobe da berdez pintatzea eta hori izan da kolore hori aukeratzeko arrazoi nagusia.

Bestalde, frontoia berritzeko lanak azaroaren 23rako amaituta egotea espero zen baina ez da horrela izan. Oraindik zenbait lan egitea falta da, tartean kantzako paretak margotu edota hainbat garbiketara eta txukuntze lan.

Abenduaren 2an, Udazken Kulturaren programazioaren barruan, Donostiako Eskola dantza taldearen emanaldia iragarrita dago frontoian eta ordurako lanak amaituta egongo direla uste da. Berritze lanak uztailaren hasieran hasi ziren eta, Anselmo Iñurrategi arkitektoaren proiektuari jarraituz, Construcciones Arregi enpresa izan da Udal Pilotalekuan lanean. Esan dezagun aurrekontua 50 milioi pezeta ingurukoa izan da.

Iturkintz Berri

INSTALAZIOAK: Iturkintza, Berogintza, Gasa

Amillaga, 1 (B Pabiloia)

☎ 76 28 04

BERGARA

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apaintetarako eta industriarako pinturak
- Paper margotuak
- Moketak eta tapizatuak



Teilatua konpontzeko eskaria egin eta lau gelarendako espazioa egokitu da atzealdean.

Gurutze Gorriak baimenik barik egin ditu obrak San Prudentzian

Lanak amaituta, Udalak ez du proiektuaren berri

Gurutze Gorriak Udalaren baimenik gabe egin ditu San Prudentzioko basearen haunditze lanak. Mikel Garagorri Deba Garaiko Gurutze Gorriko arduradunak teilatua konpondu eta, Gurutze Gorriak egiten duen lan altruista kontutan izanik, udal zergak ez ordaintzeko eskakizuna egin zion Udaleko Hirigintza Batzordeari. Udalak lanak egiteko baimena eman zion, baldin eta, herritar guztiek bezala, Gurutze Gorriak lanei zegozkien udal zergak ordaintzen bazituen.

Azkenean Gurutze Gorriak San Prudentzioko basea haunditzeko aukera aprobeztatu du Udalaren inolako baimenik gabe. Basearen atzealdean anpliazio bat egin da, lau gelarendako espazioa eginez.

Udalak lanak geldiarazteko bi agindu luzatu bazizkion ere, Gurutze Gorriak ez zuen kasorik egin eta lanak amaitu ditu dagoeneko. Orain, Udala, lan horien proiektuaren zain dago, bere onspena ematen dion ala ez erabaki ahal izateko.

Jose Antonio Etxeberria Hirigintza zinegotziak adierazi digun bezala, *"guk lanak gelditzeko agindu genien baina ez digute kasorik egin. Orain obra bukatuta dago eta ea noiz ekartzen duten obra borren proiektua, oraindik ez baitugu ezer jaso"*.

Udalak proiektu hori jasotzen duenean zehaztu beharko du zein den egindako lanen inportea eta ondoren erabakiko du zer egin.

◆ Oldartzen prozesua

Oldartzen prozesuaren bigarren fasearekin jarraituz, datorren ostiralean, abenduak 1, batzarra izango da 18.45etan Arrano Zaharrean.

◆ Ikaslearen eguneko zozketa

Ikaslearen eguna zela eta, Ipintza institutuan antolatutako zozketan, 6.859 zenbakia izan da saritua. Irabazleak 25.000 pza. izango ditu Etxeparen gastatzeko.

◆ AEKn ibilitako irakasleen afaria

Deba Garaiko AEKko euskaltegietan ibilitako irakasle eta laguntzaileek afaria izango dute abenduaren 15ean. Bergarako Akulu Euskaltegiak gonbidapen zabala egin du eta izena ematea azaroaren 30era arte egin ahal izango da Arrasateko Erdu AEK Euskaltegian (77 03 69).

◆ Aratuzteetako bilera

Aratuzteetarako programa osatzen lagundu nahi duten guztiei dei egiten zaie asteartean 7etan Kultur Etxean egingo den bileran parte hartzeko.

◆ Orkestaren emanaldia Sopuertan

Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoak kontzertua eskeniko du larunbatean 8etan Sopuertako (Bizkaia) zine-aretoan.

◆ Paketeria ikastaroa

Bedelkarrek astelehenetik aurrera paketeria ikastaroa iragarri du. Interesatuek argibide gehiago 76 04 68 telefonoan jaso dezakete.

Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

UNEDen aldeko beste manifestazio baterako deia zabaldu da zapatarako

UNEDeko langileek deituta, zentroaren berregituratzearen kontrako manifestazioa izango da bihar larunbata, hilak 25, eguerdiko ordubaterdian. Gogoratuko duzue, UNED zuzentzen duen Patronatoak Euskal Kultur Departamentua itxi eta irakasleen plantila murrizteko akordioa hartu zuen pasa den uztailean. Dagoeneko Patronatoak Gonzalo Sacristán izendatu du berregituratze horren jostorea izateko eta EKDren ixtea gauzatuta dago. Juan Martín Elexpuru EKDko irakasleak adierazi digunez, "despidoe-

kin hasteko lehen pausua ere ematen hasi dira eta kontua oso bizkor doala ikusten da".

Itxialdiak

Asteartean UNEDeko hainbat irakaslek beren lan egoeraren kontrako entzierro bat hasi zuten UNEDen. Langileak zapatu eguerdira arte UNEDen entzerratuta egoteko asmoa zuten. Era berean, Jose Mari Zeberio Kultura Sailburuordearekin eta Bergarako alkatearekin egotekoak ziren UNEDeko langileak. Biler horretan hitz egindakoari bu-




Orain dela bi asteko manifestazioan mila lagun inguru bildu ziren.

ruz ezin izan dugu berri- rritarrei bihar eguerdiko- rik jaso. UNEDeko langi- manifestazioan parte har- leek dei egiten diete he- tzeke.

Internazionalismoa eta elkartasuna

Aste honetan hasiera eman zaio Komite Internazionalistak antolatutako "Internazionalismo eta elkartasunaren hamabostaldia"ri. Asteartean Roberto Lastre Kubako estatu fiskal orokorrak (argazkian) "Kuba norantz doa?" izenburuko hitzaldia eman zuen Kultur Etxean. Proiektzio aretoa jendez beteta zegoelarik, Lastrek Kubak azkenaldian jasotako aldaketak eta etorkizunerako dituen erronkak

azaldu zituen. Bestalde, bihar, larunbata, arratsaldeko 6etatik aurrera aktuzioak, diapositiba emanaldiak, mojito dastaketa edota Oscar eta Parranda Mexicana taldeen kontzertua izango da Gartzela Zaharrean. Asteartean, berriz, Amaia Zabaleta abokatuak "Emakumea eta pobrezia" hitzaldia emango du 19.30etan Pol-Polen eta ostegunean Guatemalari buruzko ikuspegia emango dute Karmele Pérez eta Amaia Agirrezabalaga Komiteko partaideek 19.30etan Kultur Etxean. Pol-Polen eta Nahikarin ere gaiari buruzko erakusketak antolatu dira.



AGENTZIA:
J. ELKORO

Ibargarai, 2 behea
Tfnoa: 76 57 85
BERGARA

VITA

CAUDAL

ZURICH TALDEA ASEGURUAK

ZURICH



UNIBER

HISPANIA



AKORT

- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorentzo, 7 behea.
☎ 76 50 39

Informatika

Informazioaren bide zabalak

- Asko hitzegiten ari da azkenaldian "informazioaren bide zabalak". Zer dira?

- "Windows 95"aren aurkezpenarekin asko idatzi eta komentatu da bai, informazio bide zabalak kontua. Windows-aren boom hori aprobetxatuz Internet sarea ere saldu digute. Azken batean telefono koneksio baten bidez informazio pila bat eskura izatea litzateke. Informazio horretara heldu ahal izateko lizentzia bat behar da eta hainbat enpresa hasi dira dagoeneko erabiltzaileak sare horretara konektatzen. Hasieran gainera oferta erakargarriak kale-ratu dituzte. Eta Internet-en sare horretara sartu ahal izateko ordenagailua, modema (informazioa modulatzeko beharrezkoa dena) eta telefonoa izatea behar da.

- **Nolako informazioa jaso dezakegu?**

- Era askotako informazioa izango da. Sines-tezineko mundu bat da hori. Ez dakit, era guztietako datuak izango dira:


datu estadistikoak, historian zehar izandako gertakari garrantzitsuenen kronolojia, estatu boletinak, enpresa ezberdinei buruzko datuak..., etabar luze bat. Informazioaren menu horretan maila ezberdinak izango direla uste dut eta, horrela, informazio konfidentzial edota enpresei buruzkoa jaso ahal izateko pentsa-



AGUSTIN OJANGUREN
(Gamak-eko arduraduna)

tzen dut lizentzia altuago bat ordaindu beharko dela. Denbora aurrera joan ahala hori haundituz joango da eta etxetik irten gabe hainbat informazio jasotzeko aukera izango dugu eta Internet sarearen bidez egunkaria irakurtzeko aukera ere

"Internet sarera sartzeko ordenagailua, modema eta telefonoa behar dira"



Gure ordenagailuetan informazio zabala jaso ahal izango dugu.

bai. Dena den, kontutan izan telefonikako linea bat behar dela eta informazio hori jasotzeko kostu bat izango duela.

- **Beste funtziorik izango al dute Internet bezalako sareek?**

- Korreoko buzoi bezala ere erabili ahal izango dira. Internet-eko erabiltzaileak konektatuta egongo dira elkarren artean eta mezuak elkartrukatu ahal izango dituzte. Pentsa ezazu arazo bat duzula zure enpresako makina batekin. Makina hori Estatu Batuetako enpresa batek egin du eta beraiengana jo nahi duzu. Baina Internet-en bitartez zure arazoaren berri ematen diozu eta handik gutxira arazoaren konponbidea jaso dezakezu zure enpresako ordenadorean.

Beste aurrerapausu handia programen aldaketak eguneratuta izatea izango da. Informazio guztia bizi-bizia izango da eta informazioaren alor guztietan eguneratuta biziko gara. Azken batean Internet-en helburu nagusia informazio asko eskura izatea da eta horrek informazioaren merkatua zabalduko du. Enpresetako informazioa saltzera dedikatzen den jendea sortuko da eta komunikazioaren munduan sekulako aldaketak emango dira.

IGARZA

**MERZERIA
LENZERIA**


Irala, 5 ☎ 76 24 88 BERGARA

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

Enpresari eta alkate ohia.
 UNEDeko Patronatuko
 presidente, Batzar Nagusietako
 batzarkide, Bergarako Kultur
 Ekintzako lehen presidente edota
 Gureak lantegiko sortzaile izan
 zen Jose Antonio Zabala.



Jose Antonio Zabala

**"Euskara
da gure
ezaugarririk
nagusiena
eta indartu
egin behar
da"**

**75 urte ditu, 1920ko urtarrilaren 4an
jaio zen Bergaran; Mertxe Ibarbiarekin
ezkonduta dago eta 6 seme-alaba
dituzte, bat hil egin baitzitzaien. Duela
26 urte joan zen Donostiara bizitzera.
Begarako alkate izan zen enpresari eta
abokatua, besteak beste Promoción
Culturalen eta Gureak lantegi
babestuen sortzaile izan da.**

Oker ez bagaude,
zuzenbidea ika-
si zenuen...

- Lehenengo ikasketak
seminarioan egin nituen,
Gasteizen batxilerra eta
gero Bilbora joan nintzen
zuzenbidea ikastera. 1.
ikasturtea egiten ari nin-
tzela gerra etorri zen, 18
urte beteta nituen eta sol-

daduzkara eraman nindu-
ten, gerrara. Frankotarre-
kin Teruel, e.a.n ibili nin-
tzen. Gerra bukatutako-
an, 1941ean karrera Va-
lladoliden bukatu nuen.

- **Abokatu lanetan
hasi zinen gero.**

- Bai, Juan Ramon
Ugaldek eta biok despa-
txua jarri genuen, baina



**Matxiategi
Elektragintza
C.B.**

**ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA**

Fleming Doktorea, 5
☎ 76 19 94

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

urte t'erdira lantegi batean hasi nintzen.

- Torunsan, ezta? Zeu izan zinen sortzaile.

- Nire osaba Rafael Unzurrunzaga eta biok. Lehenengo Soraluzen hasi ginen eta 1943an Bergarara ekarri genuen. 1969an laga nuen eta Donostiara joan nintzen. Han, beste batzuekin egur lantegi bat sortu eta gerente izan nintzen.

- Noiz joan zinen Donostiara?

- Duela 26 urte.

- Alkate zinenen ere Donostian bizi zinen?

- Bai, zinegotzitarako deitu zidaten nik gestioak egiteko eta laguntza eskeiniko nuelakoan. Baina alkatea nor izango zen erabakitzen hasi eta nire izena atera zen. Asterik gehiena Bergaran egiten nuen, astelehenean etorri eta asteazkenean Donostiara joan, hurrengo egunean berriz etorri... horrela ibili nintzen.

- Nola gogoratzen dituzu urte haiek?

-Ondo. Dena talde lanean egiten zen eta ondo moldatu ginen. Orain alderdi politiko batzuek osatutako Gobernu Batzordea dago, orduan, ostera, denok osatzen genuen Batzorde Iraunkorra zegoen eta den-dena eztabaidatzen zen. Behin baino gehiagotan atera ginen udaletxetik goizeko ordubatean.

- Ordutik asko alda

tu dira gauzak?

- Orduan ez zegoen dirurik. Jo dezagun orain Bergarako Udalak 1.500 miloiko aurrekontua duela, ba lehenengo urtean, 1979an, guk 108 milioi baino ez genuen izan. Gero autonomi kontzertua lortu zen eta desberdina izan zen. Lehenengo urtean, diru gutxi genuenez Agorrosingo zubia konpondu genuen, eta hurrengo hiru urteetan ia 1.000 milioi izan genuen eta gauza asko egiteko aukera izan genuen: bariantea, zaharren egoitzaren lehen zatia egin eta bigarrena hasi, Osakidetza anbulatorioa, Usondoko parkea, Ipintzako futbol zelaia, Osintxuko parkea...

- Alkate izan eta ez zenuen politikan jarraitzeko tentaziorik izan?

- Hamabi urtetan Batzar nagusietan egon nintzen: alkate izan nintzen bitartean EAJko bozemaile izan nintzen, beste lau urte egin eta gero azken lau urteetan (91 arte) EAko juntero jarraitu nuen. Gaur egun politika lagata dut, ez dut inolako kargurik.

- Harrez gero ez duzu berriz alkate izateko gogorik izan?

- Ez, ez, ez. Esperientzia aberatsa eta ona izan zen, baina horrelako gauzak bizitzan behin egiteko direla uste dut.

- Zein iritzi duzu egungo giro politikoaz?

- Bakea behar da eta bakea lortzeko elkarrizketa behar da. Zentzu bideetik jokatu beharra dagoela uste dut.

- Alkatezta laga eta gero enpresa lanetara bueltatu zinen.


- Bai, duela 8 urte jubilatuta arte.

- Orain baduzu harremanik Bergararekin?

- Oso gutxi etortzen naiz. Azken urte honetan bizpahiru aldiz edo etorri naiz. Donostian gauza askotan sartuta nabil eta ez dut askotan etortzeko aukerarik.

- Enpresaria izan zara. Nola ikusten duzu Bergaran industria?

- Espezializatu beharra dagoela uste dut. Kanpo-



"Nire ustez herri juradoak ez luke epairik eman behar, iritzi bat baizik, epailearentzat aholkulari izan behar luke"

Duela 26 urte Donostiara bizitzera joan zen eta alkate izan zen garaian Bergarara etortzen zen.

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale, 6 Tfnoa: 76 13 29

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera
San Lorenzo, 25 BERGARA

Siaska

Dena zure
haurrarentzako

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

tik, Txina, Taiwan, e.a.tik konpetentzia handia dator; aurrera egingo badugu, zerbaitetan espezializatu behar dugu. Dena den, Bergaran Deba Garaioko beste herri batzuetan baino langabezia gutxiago dagoela uste dut.

- Alkate izan baino lehen Promoción Culturalen ibili zinen.

- 1966an hasi ginen, hezkuntza mailan hutsune handiak zeudela uste genuelako. Esate baterako, gela batzuetan 90 lagun eta zeuden, eta gainera lurrean ikasten zuten. Horretaz gain, esko-

"Bergarako UNED Donostian balego Diputazioak, Kutxak..., denek defendituko lukete, baina herri batean dagoenez..."

larik ere ez zegoen eta Matxiategin eskola prefabrikatuak jarri genituen. Oso erantzun ona izan zuen. Orduan udala eta herritarren artean ez zegoen harremanik eta Promoción Culturalak zubi egiten zuen udalaren eta herriaren artean. Hezkuntza eta kultura suspertzea eta garatzea zituen helburu, eta horretarako zeuden

hutsuneak edo gabeziak betetzen saiatu ginen. Kultura orokorra ikasteko, kontabilitatea, mekano-grafia, inglesa edo frantsesa ikasteko eskolak jarri ziren, euskara ikasteko gau eskolak, alfabetatze edo txistu eskolak... Alkartu-nai ere eratu zen...

- Gaur egun desagertuta dago.

- Nire ustez beharrik ez dagoelako da, gaur egun Udalaren bidez egiten dira Promocionez egiten zituen lanak.


- Gureak lantegi basteuen sortzaile ere bazara.

- 38 urteko alaba atzeratu bat dugu. 1971n San Migel Patronatuak 21 urte arteko ikasleak hartzen zituen, beraz, adin horretatik aurrerakoek jarraitzeko aukerarik ez zuten eurentzako zerbait sortzeko kezka genuen. Horrela lantegiak sortu ziren. 1971n Seminarioan jarri genuen lehenengoa, gero Donostian beste bat eta ondoren beste 13 etorri ziren. 7-10 lagun hasi ziren eta gaur egun 1000 bat langile ditu.

- UNEDeko Patronatuko presidente izan zinen.

- UNED oso interesgarria, beharrezkoa izan da eta da. Jendeari aldi berean ikasteko eta lan egiteko aukera ematen dio. Gaur egun arazoak ditu, baina nik uste dut herri batean dagoelako dela. Nire ustez UNED Donostian balego Diputazioak, Kutxak... denek defendituko lukete baina herri batean dagoenez... nik uste hori salatu egin be-

"Industrialian kanpotik konpetentzia handia dator eta guk zerbaitetan espezializatu behar dugu"



Garnish
Bitxitegia


San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta, 5
☎ 76 20 34

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta, 24 BERGARA
☎ 76 13 35



Egun jubilatuta egon arren, besteak beste, Izurun fundazioako lehendakariorde da, Gureak lantegi babestuetako batzordekide eta Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko diruzain.

da.

- Abokatu izan zara, zu herri juradoaren aldeko zara?

- Nire ustez herri juradoak ez luke epairik eman behar, iritzi bat baikik, epailearentzat aholkulari izan behar luke eta epaileak juradoaren epaia aldatzeko eskubidea izan beharko luke. Baliteke juradoarengan arrazoiak baino gehiago sentimenduak agintzea, eta epaileari hori ez zaio gertatzen.

- Gaur egun jubilatuta zaude...

- Baina ez dut asperterik. Euskal Herriko Adiskideen Elkarteko diruzain naiz; Donostiako Seminarioan Magisteritza eskola itxi zenean ikasketa laborategi bat jarri zen, Izurun fundazioa, ikastetxei diagnostikoak eta

ikerketak egiteko. Bertako lehendakari da gotzaria, ni lehendakariorde naiz; Gureak elkarteko batzordean sartuta nago...

- Kontaiguzu ohiko egun batean egiten duzuna.

- Goizeko 6etatik 7etara Euskadi Irratia entzuten dut; 7etan jeiki eta beti lanen bat egiteko izaten dudanez, etxetik, Antiguotik, erdialdera joaten naiz oinez. Beste zereginen bat dela eta arratsaldean ere erdialdera joaten naiz, egunean oinez bi aldiz egiten dut joan-etorria. Gauean 10ak aldean oheratzen naiz eta ordu-bete bat irakurtzen ematen dut. Asko gustatzen zait irakurtzea, historiazale handia naiz eta orain Arturo Campionen lanak irakurtzen ari naiz.

har dela.

- Zein soluzio ikusten duzu?

- Gure garaian ere aurrekontu handia zuen eta Udalak UNEDi ematen zion laguntza %20tik %5era jeitsi genuen. Horretaz gain, guk kanpotik etortzen ziren ikasleen herrietako udalei hainbateko bat ordaintzeko proposatu genien; orduan ez zuen oso erantzun ona izan, baina gaur UNEDen arazoaren irtenbide bat izan litekeelakoan nago.

- EKD, euskal kultur departamentua arriskuan dago.

- Euskara da gure ezaugarri nagusia eta indartu egin behar da; gai horretaz ez nago jabe-

tuta, baina euskaragatik egiten den guztia gutxi



"Bakea behar dugu eta bakea lortzeko elkarrizketa behar da"

LAKET
gizon emakume
Barrenkale, 35 BERGARA

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA


KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •

Erretratu zaharrak gordetzeko ohiturarik ba al daukazu?



Marisol González
24 urte, langilea

Bai, erretratuak gordetzea eta noizean behin begiradaxo bat ematea gustatzen zait. Askotxo daukat eta albumetan gordetzen ditut.




Asier Bardezi
23 urte, langilea

Egia esan ez daukat gordetzeko ohiturarik, baten batzuk bakarrik. Betikoak, ezkontzakoak eta horrelakoak. Batzuetan ikusten ditut, bai.



Mari Karmen Badiola
34 urte, etxeandrea

Bai, gainera hurrekin argazki zaharrak ikustea asko gustatzen zait. Anai-arrebak ditut eta banatuta dauzkagu.




Oscar Rangil
23 urte, ikaslea

Nere amak gordetzen ditu gehienbat: umea nintzenekoak, jaurnartzeakoak etabar. Albumetan dauzkagu nahiz eta urtez urte sailkatuta ez egon.



Amaia Aiastui
28 urte, langilea

Asko ez dauzkat baina gustatzen zait gordetzea. Ahal dudanean gainera, ikusteko ohitura daukat. Gehienak kajetan gordeta ditugu.



Antonio Serrano
21 urte, langilea

Badauzkagu batzuk baina ez dut askotan ikusten. Nahiago ditut oraingoak ikustea, oporretakoak eta lagunekin ateratakoak.

Biltoki



SUKALDE ETA BAINURAKO ALTZARIAK.
DISEINU ETA KALITATE HAUNDIKOAK.
5 URTEKO GARANTIA.

SAN PEDRO PLAZA Z/G ☎ 76 34 00

PHILIPS



TEKNOLOGIA ETA DISEINUA.
TB, TURBO DRIVE-DUN BIDEOAK.
HI-FI MATCH-LINE EKIPOAK.
100 HERTZIOTAKO DIGITAL SCAM TB-K
BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96

dekorazioa


GAZTE ESTILOKO ALTZARIAK.
ALFONBRAK, LARRUZKO SOFAK.
DEKORAZIORAKO OSAGARRIAK.

SAN MARTIN PLAZA ☎ 76 43 51

SONY

TB, BIDEOAK, KAMARAK.
HI-FI EKIPOAK.
SUPER TRINITRON TB.

BARRENKALE, 6 ☎ 76 25 96



Ponentzia bat dela eta

Jesus Larrañaga, Fagor Elektragailuak Kooperatiba Elkarte-ko gerente ohia, kooperatiba munduan aditua eta aski ezaguna, hizlari izan genuen joan zen ostegunean Miguel Altuna Institutuan, Elizbarrutiko Idazkaritzaren eskutik. Han izan ginen eta ponentzia ondorengo elkarrizketan ere parte hartu genuen.

Abiapuntua hau zen: azken urteotako ekonomia berpizteak ez duela lanposturik sortu. Entzun genuena, aspaldi honetan enpresa zuzendariak eta CEOek luzatzen diguten prediku berbera. "Merkatuarena ez den ekonomiari ez dago" aldarrikatu zuen Larrañaga jaunak. Beraz, merkatu lanaren arabera ez dago ekonomia sozial batentzako lekurik. Hala ulertu behar diogu. "Inork ez dauka lanpostuak sortzeko obligaziorik" zioen. Eta, gezurra badirudi ere, ondoren, udalek enplegua sortzeko nola ahalgindu beharko lirakeen aipatu zuen. Beharbada, okerrena jota ere administrazioari tokatzen zaio ekintza sozialak bultzatzea.

Ekonomia hazi egin da azken urteotan, produktibitatea gora doa eta soldadak ez dira IPCaren gainetik igo; langabezia bai, ordea. Beraz, lanpostuak sortzen ez da emankortasunik erabiltzen. Nora doa orduan hazkundearen emaitza enpresari irabazietara ezpada? Langileok probetxu gutxi jaso dugu emaitza hauengandik. Ez al da zuzena hazkundearen etekinen banaketan alderdi soziala kontutan hartzea? Beste galdera bat: Posible al da gero eta marginatuago sentitzen den gazteriari, inork ez duela lanpostuak sortzeko obligaziorik ozenki bota aurpegira eta gero autobusak erretzeari uzteko eskatzea? Nola nahi duzu gizartean lekurik egiten ez diozun horrek gizarte arauak errespetatzea.

Gure adituek liberalismo zahar eta zakar hori besterik ez badute gizabidetzat, nola elkarbidu gizarte indarrak Euskal Herrian proiektu bat aurrera ateratzeko? Eta gehiago, kooperatiba munduan buru den pertsonalitate baten ideologia hau bada, non dago kooperatibismoaren izpiritua? Kitto ba!!

Xabier LARRAÑAGA ELA SINDIKATUKOAK



Euskara eta isiltasuna

Euskararen historia isiltasunez eta mututasunez egina dago, zenbaitetan isiltasunean gordea, hitz arrotzez inguratua, desamorio eta erasoak astindua. Euskara, isiltasunera murriztua, isiltasun iraunkortik hitzaren ausentziarantz, heriotzarantz. Euskara, mendeetan barrena berarizko mututasunez arbuatua, ahaztua eta be-xatua. Euskara, hizkuntza minorizatua, zigor sinbolikoaren ikuspegitik ere azter gintezke, horrela, hizkuntza baztertu, edo elementu bultzatzaileez gabetzen da. Erabilpenaren debekua inposatzen zaionean, hizkuntza isilarazten da eta hizkuntza isiltasun iraunkortik ausentzia bilakaturik, heriotzaren magalean iragiten da.

Erabaki politiko eta legaltasunaren begiradatik espazio sozia-la kontrolpean geratzen da; honela, haiek eremu oro harrapatzen dute: eremu politikoa, bizitza soziala, hezkuntza... iharduerak eta diskurtsoak kontrolatuz, eta zer den egoki, zer desegoki, zer errentagarri, eta zer ez erabakiz. Honen adibide bat Bergarako UNEDeko euskara saila kentzea izan da. Neurri hori hartu duten politikarien Bergara eta euskal kulturarekiko sentiberatasunik eza nabarmena da. Lotsagarria, ulerezinezkoa den erabakiaren inguruan, susmo txarra hartzen diozu, edota politikarien ezgaitasunarekin topo egiten dugu. Gure lurraldeko UNED bakarrean sortzen den ekimen kultural positibo, bizi eta sustatzailea, euskaldun komunitatearentzat onuragarri dena, geure politikariek ixteari gogoz eusten diote, diruaren argudio azalekoa emanez.

Euskararen eraikuntza eta sustapenerako ez da nahiko talde sozialek neurriak exijitzea; administrazioak ardura hori bere gain hartzen ez badu, euskara atzerapenaren alde lan egingo du. Edozein erabakitatik datorkigun ekintzak errealitatea sortzen du eta erabaki hori hartu dutenek ez dute inondik ere hizkuntz kontzientziarik erakutsi, boterea interes arrotzetan kokatu baitute herri eta euskal kulturaren zerbitzupuan jarri beharrean, euskara garapenaren aurkako kontzientziaren eredu ederra emanez.


Aitxus IÑARRA

ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

MEZULARIAK • PAKETERIA
GARRAIOAK • ZERBITZUAK



BERGARA ☎ 76 48 29

Mobilak: (908) 77 33 91 / 87 52 94

LARRAÑAGA
eta ZUBIA
Banatzaileak

Errioxako ardoa, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

Usoa Pub



☎ 76 38 57

Irala, 1

Kizkur

ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32



■ **Santa Ana txapeldun**

Santa Ana elkarteak irabazi zuen larunbatean Elkarteen Arteko Tute eta Mus Txapelketa, finalean Pertxa elkarteari 2 eta 1 irabazi ondoren. Finalaurretan, **Pertxa 2** eta 1 nagusitu zitzaion **Artatseri** eta Santa Anak, berriz, 3 eta 0 irabazi zion **Goxo-Pe** elkarteari. Finaleko partidetan, tutean, Santa Anako **Juan Hervás** eta **Francisco Bretañak**, **Felix Mujika** eta **Iñaki Arrietari** irabazi zieten, 10 erregetako musean Pertxako **Jose Ramón Lozano** eta **Agustín Lizarralde**, **Antonio Marchena**

eta **Emiliano Garcíari** nagusitu zitzaizkien eta, azkenik, **Pedro Castro** eta **Antonio Mulasek** (Santa Ana) puntu erabakiorra lortu zuten **Jesús Kalboetxeaga** eta **Vidal Kareagaren** aurka. Hirugarren posturako neurketan Artatsek 2 eta 1 irabazi zion Goxo-Peri. Santa Anak txapela, Udalaren plaka eta kopa eraman zituen sari gisa. Bestalde, azpimarratzekoa izan da Lasai-Toki elkarteak aurten egindako antolaketa. Datorren urtean, txapeldun bezala, Santa-Anak jaso beharko du testigua.

■ **Naturarekiko errespetu falta**

Espainiako ejerzitoak pasa den urrian Bergara inguruan eginiko maniobretan naturarekiko errespeto falta erakutsi zuen.

"Compañía de paracaidistas de Alcalá de Henares" delakoak zabor ugari utzi zituen

Hirutontorreta inguruan, Aitor Aranzabal HBko zinegotziak bidali digun argazkian ikus daitekeen bezala. Ekintza hauek salatzeakoak dira eta espero dezagun berriz ere ez errepikatzea.



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

zumelaga

JATETXEA

EZKONTZAK, DESPEDIDAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK, MENU BEREZIAK...

etorri eta galdetu!!

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta, 26 BERGARA



■ 1945ean jaiotakoen afaria

Pasa den larunbatean 1945an jaiotako gizon eta emakumeek anaiarteko eguna ospatu zuten. Arratsaldean **Sierbetan** meza entzun ondoren, afaria izan zuten Osintxuko Txuringo jatetxean eta guztiek primeran pasa zuten. Aurten 50 urte betetzen dituztela ospatu nahi izan zuten eta, lehen aldiz, gizon eta emakumeak bildu ziren. Deialdiak primerako erantzuna izan zuen, 114 lagun bildu baitziren. Datorren urtean berriz biltzekotan geratu ziren. Ea ba!



■ Hegazti ikusgarria

Aurreko astean herritar batzuek argazkian ikus dezakezen hegaztia goiko estazioan zaurituta aurkitu eta **Baldana Albaitari Klinikara** eraman zuten. Hegaztiak hegoetako batean tiro bat zeukan eta ezin zuen hegan egin. Oso gaztea zenez, Baldanakoek eta Donostiatik etorritako baso zaindarien ezin izan zuten zehaztu hegaztia belatza edota aztorea zen. Dena den, **Igeldoko Berreskuratze Zentroan** osatu bezain laister, hemen inguruan askatuko dituzte.

Zertan dihardute ba?



Jon Balentziaga 35 urteko artista bergararrak Arrasateko Aita Menni ospitaleko gaisoek Donostian antolatu duten margo eta eskulan erakusketa zuzendu du. Orain dela bost urtetik Balentziagak pintura eta eskultura klaseak ematen dizkie Aita Menni ospitaleko gaisoei. Bere hitzetan, *"basieran zaila egiten zitzaidan beraien arreta eta aditasuna lortzea, baina denborak aurrera egin abala, beren ezagutza eta lanen kalitatea hobetu eta bere kabuz baliatzeko gaitasuna haundituz joan da"*. Erakusketan 40 lagunek hartu dute parte eta Kutxak Garibai kaleko 20. zenbakian duen aretoan ikusi ahal izango da igandera arte, arratsaldez 5etatik 9etara eta jaiegunetan 11.30etatik 13.30ra.

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

Susana Iza

Susanak (69 urte) eta bere senarrak 1955ean ireki zuten Biltoki Ozaetan. Lanera gustora joaten da, berarentzat relaxa da. Jendearekin egotea du gustoko. 40 urtean izan dituen lehen oporrek aurtengoak izan dira.

- Noiz hasi zinen lanean?
- 16 urterekin Zerrajeran; amaren dendara ere joaten nintzen.
- Saltzaile onaren sekretua?
- Kalitate ona eskeintzea eta bezeroarekin psikologo izatea.
- Gehien saltzea kostatu zaizuna?
- Ez dakit azkar saltzen eta ondoegi aholkatzeagatik saltzeke geratu diren gauzak.
- Lan hau egingo ez bazenu...
- Ez dakit zer egingo nukeen.
- Lanaz gain zer egiten duzu?
- Pintatzea dut gogoko, gizona hil zenean hasi nintzen.
- Erakusketak ikusten dituzu?
- Lanagatik kanpora joaten naizenean beti ikusten ditut museoak eta erakusketak.
- Pintore bat?
- Denek dute zerbait.
- Eskulanik egiten duzu?
- Brikolagea. Bordatuak eta ez



"Egunean egotea komeni da. Hiru egunkari irakurtzen ditut egunero, astekariak erosten ditut eta irratiko tertuliak ere entzuten ditut. Pintatzea asko gustatzen zait eta museoak eta erakusketak ikusten ere badakit"

- zaizkit gustatzen.
- Zein erregalarekin asmatzen da beti?
- Kuadro batekin, gainera afizioa sortzen du.
- Estimatu duzun erregaloren bat?
- Elgetako Julio Panaderokuak egindako kobrezko galdara handi bat eta panderoa.
- Nola jantziko zenuke etxea?
- Ingles klasikoan.
- Bergarako lekurik maiteena?
- Ozaetatik San Prudentziorakoa, gazte denbora gogorarazten dit.
- Asko aldatu da orain kalean ikusten duzuna?
- Bai. Umeak kalean jolasean, etxe aurreko tertuliak...
- Oroitzapenak bizi-bizi dituzu?
- Pelikula bat bezala: Belengo zelaian jolasean, Zurra gainean trena pasatzen ikusten...
- Albisteak eta entzuten dituzu?
- Egunero hiru egunkari eta aldizkariak irakurri, eta irratia entzuten dut.
- Zerk ematen dizu beldurra?
- Gazte asko lanik gabe ikusteak.
- Bertsozalea?
- Bai, orain erosi ditut Uztapide eta Lazkao Txikiren liburuak.
- Zure bizitzan zerbait aldatuko zenuke?
- Ba..., banketxeen menpe bizi beharra



ARRASTRO
Birziklaia



Erabilitako objetuen berreskurapena:
altzariak, saneamendua, etxerako tresneria, aintzinakoak.
Altzari bilketa • Zurgintza lanak • Beira eta ispiluak.

BIGAREN ESKUKO ALTZARIAK PREZIO ONEAN!!

Erabiltzen ez dituzun altzari edo tresneriarik badaukazu dei egin 78 32 88 telefonora eta geuk batuko ditugu

Gure ordutegia hurrengoa da:

Astehenetik ostiralera, arratsaldeko 4etatik 8etara. Larunbatetan, goizeko 11etatik ordu 2etara

Kalezaharra 54 - OÑATI - Tfnoa: 78 32 88

POL-POL
Taberna

☎ 76 07 78



ETXEBIZITZA

122 m2ko **pisua** salgai. Lorangeiarekin (286 m2).
☎ 76 33 85/15 76 (gauetz).

Aranerrek **pisua** salgai.
☎ 76 00 39 / 79 27 68.

Etxea alokatzen da San Antonion. ☎ 76 30 32.

Garaje bat alokatuko nuke Burdiñaten. ☎ 76 21 39.

Bi gelatako pisua alokatuko nuke. ☎ 76 21 43 (Igone).

Etxea salgai Zubiaurren. Eguzkitsua. ☎ 76 17 04.

Garajea dut alokatzeko Zurraideron. ☎ 76 37 69.

Garajea salgai prezio onean. ☎ 76 03 70.

Pisu edo ganbara bat alokatuko nuke. ☎ 76 47 85.

Lokala alokairuan Koldo Eleizalden. ☎ 76 37 69.

Pisu amueblatua alokatzen da Bolun. ☎ 76 39 91.

Pisua salgai Koldo Eleizalde 18n. ☎ 76 31 57.

Garajea alokatzen da Masterrekan. ☎ 76 45 10.

Pisu amueblatua salgai Masterrekan. ☎ 76 53 12.

Garaje bat alokatzen da. ☎ 76 55 50.

DENETARIK

Aintzinako komedore bat erosiko nuke. ☎ 76 12 86.

Zibro-kamin estufa bat (RCA-86 B modeloa) salgai. ☎ 76 21 90.

Eski denboraldian Jacan pisua osatzeko jendea behar da. ☎ 76 14 59 (lulen).

Honda CBR 600 motorra salgai. ☎ 76 25 50.

Mendiko bizikleta salgai. ☎ 76 15 76 (Xabi).

Mendiko bizikleta bat eta Flanders aluminiozko koardoa salgai. ☎ 76 47 94.

Bultaco cross motorra, Axo trajea, botak eta kaskoa salgai. 60.000 pezeta. ☎ 76 31 40 (Miguel).

Ford Transit furgoneta salgai. ☎ 76 40 28.

Sukalde berri berria saltzen dut. Prezio intesgarria. ☎ 76 21 55 (eguerdian).

Kerosenozko estufa salgai. ☎ 76 58 28.

Estufa japoniar bat salgai. 30.000 pezeta. ☎ 76 55 63.

Tosai kerosenozko estufa salgai. ☎ 76 07 61.

Formato erdiko **Zenza Bronika** kamara salgai. ☎ 77 12 28 (Jabier).

Dibujo mahaia, taburetea, akuarela ekipoa eta pintzelak saltzen ditut. ☎ 76 36 22.

LANA

Aleman klaseak ematen dira. ☎ 76 12 77 (Maite).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

Matematika, fisika eta kimika klaseak. ☎ 76 44 34.

Aleman diplomatuak klaseak emango lituzke. ☎ 76 04 93 (Idoia).

Matematika eta zientziatiko klaseak. ☎ 76 03 72.

Etxeko lanak egin edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 79 93 17.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Gutxitu psikikoen hezitzaile batek gutxituak, zaharrak edo haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 52 08.

Etxeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 52 89 (Rosario).

Esperientziadun neska batek etxeko lanak egin eta haurrak zainduko lituzke. ☎ 76 08 82 (Isabel).

Ingeles Filolojia duen neska batek lan egingo luke. ☎ 76 40 63 (Manoli).

Matematika eta zientziatiko klaseak. ☎ 76 31 31 (Juanma) / 76 45 80 (Andoni). Barrenkalea 13, 3.a.

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 46 48 (Paki).

Etxeak garbitu edo haurrak zaintzen ditut. ☎ 76 10 00.

Taberna bat hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 07 74.

Matematika, zientziak eta diedriko klaseak (UBIra arte). ☎ 76 24 31 (Eneko).

ARREGUI, E.M.



AROSZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariunma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

Goierri


AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

BONOFOTOA



M. A. EL KORBENE ZIBAR



Patxi Lizarralde

Patxi Lizarraldek jaso du oraingoan BONOFOTOko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu baitu. Argazkian agertzen zen baserriaren izena galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Salgomendi baserria** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak Patxi Lizarralderi eman dizkiogu. Zorionak!!

Bergarako erdialdeko zein kaletan aurkitu dezakegu balkoi eder hau?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara



1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. ERROTAGAIN	16	6	25	11
2. BERGATRANS	15	6	20	6
3. MADURA INDUSTRIAS GOL	13	6	21	8
4. OGIZUN	10	5	18	13
5. KABIA	10	6	12	10
6. ORTZI	10	6	14	13
7. MONGATXURRA	9	6	24	11
8. BAR CANALEJAS	9	6	11	9
9. ARLOTEAK	4	5	6	10
10. BILDURBAREK OPEL/LAM	3	6	14	20
11. OZAETA	3	6	11	14
12. UFALA	0	6	6	30

2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. OH ZEREZOS	16	6	50	14
2. PAGOMENDI	13	6	32	17
3. HARTU ZAMAK	11	6	16	11
4. UVE BIKOITZA	9	6	19	24
5. A ZE FLAXA	9	5	13	20
6. AUTOBEREZI	9	6	27	20
7. ETXAGI	7	5	31	21
8. KAYAK OS JARDINEIROS	6	5	22	18
9. NAIKARI HOOLIGANS	4	5	20	28
10. ERI	4	6	18	29
11. HALTZARI	3	5	12	25
12. INDARGORRI	2	5	8	10

3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. KIROLZALEAK	13	7	22	13
2. SOROPOTROAK	12	6	36	28
3. NEKROFILIKOS	12	6	24	18
4. CONSTR. BERGARA	11	6	25	14
5. AMOZKIBAR	10	6	14	10
6. SHAKTALE	9	6	16	17
7. EZINLEIKE	8	6	26	18
8. MOSKIS	7	4	14	10
9. LA JUVE	6	6	20	25
10. ARI ARI	6	5	32	32
11. EH BITERRAK	4	6	8	34
12. IGANDEKOAK	0	4	13	18

4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	15	5	23	10
2. PATA NEGRA	13	6	21	18
3. GUADALEST	10	5	18	13
4. PATXARAN TEAM	10	6	24	13
5. PJS	9	5	20	8
6. TXIPIRON	7	4	16	11
7. OSINTXU	6	5	17	21
8. MATXAKATEGI	5	5	19	23
9. LABEGARAIETA AMILOTX	4	5	9	19
10. ALDOKA MALDOKA	3	5	23	25
11. XURRUPAK	0	5	12	35

TALDEAK



Bergatrans taldea Igor Lete, Ander Garitano, Andoitz Garitano, Aitor Elorza, Aritz Uzin, Xabier Aranburu, Anjel Osinalde, Unai Altuna, Aitor Elkoro, Txema Cot, Aitor Garai eta Mikel Larrañagak osatzen dute. Orain arte Arkupe izenarekin jokatu izan dute, baina aurten Bergatrans izena hartu dute. Jokalariek diotenez, euren helburua txapelketa irabaztea da eta batez ere Ogizun taldeari nagusitzea. "Ogizunen aurkako derbia irabaztea da garrantzitsuen, kuadrilako batzuk talde horretan jokatzen baitute". Aurten behintzat pozik egongo dira...

PARTIDUAK

LARUNBATA BARRUAN

09:00: Labegaraieta-Osintxu • Uve Bikoitza
10:00: Uve Bikoitza-Hartu Zamak • Osintxu
11:00: Bildurbarek- Bar Canalejas • Hartu Zamak

LARUNBATA KANPOAN

10:00: Aldoka Maldoka-FAC • Matxakategi
11:00: PJS-Matxakategi • FAC

IGANDEA BARRUAN

09:00: Indargorri-Naikari Hooligans • Kayak OJ
10:00: Haltzari-Kayak Os Jardineiros • Naikari H
11:00: Nekrofilikos-Ari Ari • Haltzari
16:00: Soropotroak-Amozkibar • Ogizun
17:00: Ogizun-Arloteak • Soropotroak
18:00: Etxagi-A Ze Flaxa • Arloteak
19:00: Errotagain-Ortzi • A Ze Flaxa
20:00: Ozaeta-Mongatxurra • Angiozar

IGANDEA KANPOAN

09:00: Txipiron-Xurrupak • La Juve
10:00: La Juve-Igandekoak • Txipiron
11:00: Moskis-Kirolzaleak • Igandekoak
16:00: Pata Negra-Guadalest • Shaktale
17:00: EH Biterrak-Shaktale • Guadalest

ANTOLAKETA BATZORDEAREN OHARRA

Antolaketa Batzordeak jakinarazi digu, txapelketan diharduen talde bakoitzak 8.000 pzta. ordaindu beharko dituela abenduaren 16a baino lehen.

EMAITZAK

1. MAILA

OGIZUN-MADURA INDUSTRIAS GOL 3-3
KABIA-BERGATRANS 1-2
BAR CANALEJAS-UFALA 2-1
OZAETA-ORTZI 2-5
ERROTAGAIN-BILDURBAREK OPEL/LAM 3-1
ARLOTEAK-MONGATXURRA 2-4

2. MAILA

KAYAK OS JARDINEIROS-ERI 3-3
OH ZEREZOS-INDARGORRI 5-3
AUTOBEREZI-HARTU ZAMAK 1-5
PAGOMENDI-NAIKARI HOOLIGANS 10-5
HALTZARI-UVE BIKOITZA 5-0

3. MAILA

SOROPOTROAK-MOSKIS 4-2
LA JUVE-SHAKTALE 1-2
AMOZKIBAR-CONSTRUCCIONES BERGARA 0-3
EZINLEIKE-ARI ARI 10-5
KIROLZALEAK-IGANDEKOAK 4-2
NEKROFILIKOS-EH BITERRAK 5-1

4. MAILA

ALDOKA MALDOKA-OSINTXU 1-6
PATA NEGRA-XURRUPAK 4-2
PJS-FAC 1-2
LABEGARAIETA-PATA NEGRA 0-5

TALDEAK



Ogizun taldea Pedro Rico, Fernando Salinero, Inigo Aranguren, Juan Pablo Domingo, Felix Ignacio Moto, Benigno Menor, Abel Maestre, Imanol Lijo eta Jon eta Mikel Elkorobarrutiak osatzen dute. Dagoneko 5 urte daramatzate txapelketan jokatzen eta joan zen urtean mailari eusteko sekulakoak egin ondoren, aurten taldera bueltatutako joakalariekin lan hobea egitea espero dute. Jokalari beterano eta gazteen arteko orekak emaitza onak eman dizkie. Kontutan hartzekoa da Abel Maestre (41 urterekin) txapelketako beteranoenetariko dela.

T XINPARTAK

Dirulaguntzak

Udal Kirol Zerbitzuak gogorarazten die kirol elkarte eta gainontzeko kirolariei datorren osteguna, hilak 30, dela aurtengo txostena eta datorren urteko dirulaguntza eskaera aurkezteko azken eguna.

Mendiko federatu karneta

Mendiko federatu karneta berritzeko epea zabalik dago Pol-Poleko bulegoetan, astelehenetik ostegunera arratsaldeko 7etatik 8.30ak bitartean. Bestalde, elkarteko bazkide kuota eskuz ordaintzen dutenek bertatik pasa beharko dute.

Kirol ikastaroak

Aerobik eta Fitness munduan dabilzanendako ikastaroa iragarri da zapatu honetarako Arrasateko kiroldegian. Irakasleak Tomas Zubimendi eta Beatriz Ibañez izango dira.

Herrien arteko olinpiadak

Deba Garaiko herrien arteko lehen olinpiadarako izen ematea abenduaren 5ean amaituko da. 16 urtetik gorakoez osatutako taldeek har dezakete parte olinpiadan. Finalera gehienez hiru talde bergarar pasatu ahal izango dira.




Jose txo Muniategiren mutilek ez dute denboraldia oso fin hasi.

Eskubaloia talde nagusia Arrateren aurka zapatuan

Bigarren Nazional mailako eskubaloia taldeak erronka handia du bihar, larunbata, arratsaldeko 6,30etatik aurrera Eibarko Arrateren aurka. Izan ere orain arte jokatu dituzten 9 partiduetatik 2 bakarrik irabazi baitituzte eta sailkapeneko azken aurreko postuan daude momentuz.

Halere Jose txo Muniategik, entrenatzaileak, garaienaren aldeko apustu egin du biharko partidurako. *"Derrigorrez irabazi behar dugu, eurek talde ona dute, baina irregular samarra. Defentsan ondo ibiltzen bagara, irabazteko aukera asko ditugu. Ikusi behar".*

Sailkapenari buruz, lesioek zerikusi handia izan dutela adierazi digu Muniategik. *"Lesionatu asko izan ditugu eta oraindik ere badira batzuk. Horregatik jokalaria batzuk ez daude sasoi punturik onenean. Baina hori alde batera utzi eta irabazi beharra dugu".*



Asier Garitano elastiko txurigorriarekin.

Eibarrekin entrenatzen hasi da Asier Garitano

Asier Garitano futbolari bergararra 2. mailako Eibar taldearekin hasi zen entrenatzen joan zen astelehenean. Garitano datorren abenduaren 12an Cadiz taldearekin duen auziaren epaiketara aurkeztu beharko da eta epaia Gabonetarako espero du. Ondoren aztertuko ditu izan ditzakeen eskaintzak. Orain arte Bergara taldearekin ibili da entrenatzen, baina Eibarretik jasotako deia berarentzat garrantzitsua izan dela adierazi digu. Garitanok bi talderen eskaintzak jaso ditu, biak ere Espainiak hegoaldeko taldeenak. *"Orain Eibar taldearekin entrenatuko dut eta auzia konpontzen denean erabakiko dut nora joan"* esan digu.

KARTELDEGIA

FUTBOLA

◆ **Bergara-Don Bosco**
Lehen erregionala.
Larunbata, 15.30. Ipintza.

ESKUBALOIA

◆ **Bergara-Durango**
Kadete neska.
Larunbata, 16.00.
Labegaraieta kiroldegia.

◆ **Bergara-Durango**
Jubenil neska.
Larunbata, 17.15.
Labegaraieta kiroldegia.

◆ **Bergara-Arrate**
Senior mutilak
(2. nazionala).
Larunbata, 18.30.
Labegaraieta kiroldegia.

◆ **Bergara-Ereintza**
Senior mutilak
(2. territoriala).
Igandea, 12.00.
Labegaraieta kiroldegia.

SASKIBALOIA

◆ **Bergara-Bera Bera**
Junior neska.
Larunbata, 12.15.
Labegaraieta kiroldegia.

PELOTA

◆ **Bergara-San Esteban**
Jubenilak banaka.
Larunbata 17.00.
Osintxuko frontoia.
◆ **Bergara-Lagunak**
Juniorrak binaka.
Larunbata 17.00.
Osintxuko frontoia.

Ricardo Murillo

Bergara Racingeko buru

Bergarako pilotoek aurren ere emaitza bikainak lortu dituzte aritu diren txapelketetan. Halere, herriko kotxezaleen elkarteak, Bergara Racing, nahiko motel dago. Horri buruz hitz egiteko Ricardo Murillo, elkarteko lehendakariarekin hitz egin dugu.

- Zer egoeratan dago gaur egun Bergara Racing elkarteak?

- Nahiko geldia dago dena. Duela bi urte Gorkako kotxe igoera egin genuenetik ez dugu gauza askorik egin. Guztia oso ondo irten zen, baina egin genuen lanarekin jendeak nahiko erreta bukatu zuen.

- Hori ikusirik zerbait pentsatu duzue elkarte berriz berpizteko?

- Ideiak badira eta gooa ere badugu, baten bat animatuz gero, zerbait egin liteke. Elkartean 30en bat bazkide ditugu eta gauzak komentatzen dira. Ideiak badaude, baina hor gertatzen dira. Kotxe igoerei dagokienez, ez dugu besterik antolatzea pentsatu, baina antolatzekotan Espainia mailakoa izan beharko litzateke.

- Epe motzera Gorkako kotxe igoera antolatzea posible izango litzateke?

- Ez, uste dut ezetz. Jendea nahiko erreta baitago, horixe da zailtasunik nagusiena.

- Bergaran aurren ere gidari txapeldunak

izan dira eta, esate baterako, Oñatitik hango gidari bat ikustera 3 autobus joan ziren Madrilerara, hemendik zergatik ez?

- Bai, Bergaratik ere joan zen jendea. Buruan ideia hori izan dugu eta antolatu dira autobusak Bergaratik. Baina lehen esan dudan bezala gauzak motel daude.


- Egoera ikusita jende berriaren premia ikusten duzue, ez?

- Bai hori derrigorrezkoa da. Halere lehenik eta behin elkarteko bazkide guztien artean bilera bat egin beharko litzate-

ke. Horretaz gain, jende berria interesatuta baldin badago, zerbait antolatzeke edo ideia berriak proposatzeko atak parez pare ditu zabalik. Are gehiago, uste dut interesgarria izango litzatekeela interesa duenak gurekin harremanetan jartzea, elkartearen azpiegitura aprobeztatu dezake eta.

- Nola dago kotxearen mundua Bergaran?

- Oso ondo txapeldun aldetik, baina betikoak dira. Ez da irten piloto berririk, nahiz eta San Juan aldean badiren gidari batzuk lau txakur handirekin burrukan.



Bergara Racing Elkarteak geldia dagoela aitortzen du presidentek.

"Epe motzera ez dut uste Gorkako igoerarik antolatuko dugunik, jendea erreta baitago"



Askatxo txapeldun!!

Horiek mutikoteak!! Goiko argazkian agertzen direnek Askatxo taldea osatzen zuten eta 1982an (13-14 urte izango zituzten orduan) Bergara Kirol Elkarteak antolatu zuen futbol txapelketa irabazi zuten alebin kategorian. Finalak Pazkuetan izan ziren eta finalera iritsi ahal izateko liga bat jokatzeko zuten aurretik Seminarioko futbol zelaian. Orain futbito txapelketarekin gertatzen den antzera, talde ugari hartzen zuten parte kategoria ezberdinetan.

Esan bezala, Askatxo alebin kategoriako txapelduna izan zen finalean Pertxa taldeari 1 eta 0 irabazi ondoren. Partiduko gol bakarra Asier Garitanok, gaur egun futbolari profesionala denak, sartu zuen. Horra hor argazkian agertzen direnen izenak, ezkerretik eskumara:

Goian: Mikel Elkoroberezibar, Enmanuel Igartua, Alex Azkarate, Xabier Mujika, Joseba Otaño, Iulen Agirrebeña, Juan Luis Arriola eta Amadeo Corrius

Makurtuta: Mikel Santos, Mikel Linazisoro, Asier Garitano, Edu Mendibil eta Mikel Zubimendi.

Argazkia: Mikel Santos

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-denda

Orain SORALUZEN

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabilola ARRASATE
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

LILURA Edertze-institutuak**BERE 15. URTEURRENEAN,****100.000 pzta.tik gorako balioa duen****ZAHARTZEAREN AURKAKO** *trtamendu estetiko-mediku**baliagarri bat zozketatuko du.***HEMENDIK MARTXORA ARTE** *jasotzen duzun zerbitzu**bakoitzeko BONU BAT emango dizugu zozketa**paregabe honetan parte har dezazun.***Ondare Aseguratua:****Errentagarritasuna:**

- % 9,00erainoko interesa garantizatuta aurreneko hiru urteetarako.

Garantizatutako kapitalari buruzko adibideak:

Ezarpena	Garantizatutako kapitala	Interes nominala	U.T.B.
1.000.000 pzta.	1.245.000 pzta.	%8,16	%7,57
3.000.000 pzta.	3.755.000 pzta.	%8,38	%7,77
5.000.000 pzta.	6.350.000 pzta.	%9,00	%8,29

Indarreango eskaintza 95-11-6tik aurrera.

- 3 urteren buruan, epealdi berri bati interes-tasa berri bat ezarriko zaio, aipatutako interes berri hori %4tik goakoa izango dela garantizatzen delarik.

Epea eta likidezia:

- Nahi den unean berreskuratuta daitekeen arren, 15 urte irauten du.
- Berreskuratzea garantizatutako interes-aldia bukatu aurretik gertatuz gero, interes hau honako portzentailetan murriztuko litzateke:
 - Lehen urtean zehar, %60an.
 - Bigarren urtean zehar, %70ean.
 - Hirugarren urtean zehar, %80an.

Lagun Aro Vida S.A.ren
Ondare AseguratuaGrupo **CAJA LABORAL**
EUSKADIKO KUTXA



Sukalde erakusketa berrizten ari garela eta, eskaintzen dizkizugun prezio bereziak aprobetxa itzazu.

%50era arteko deskontuak!!



Bolu 24, behea BERGARA



Tfnoa eta Faxes: (943) 76 30 57